

Mahai sektoriala

Deialdiak:

- Urtarriletik argitaratuko dira **ILZ eta EIBZ aholkulari lanpostuetarako deialdiak**.
- Aurten ez da aterako **programa eta proiektuen zerbitzu-eginkizunetarako deialdirik** (2 urterako jada eman ziren eginkizunek datorren ikasturtean jarraituko dute), egonkortze prozesuak direla eta, ez eta **prestakuntzarako zerbitzu berezirik** ere. STEILASEk deialdi hau urtero egitea eskatu zuen. Hezkuntza Departamentuak **antolaketa arrazoiengatiko zerbitzu eginkizunak eskainiko ditu**, baina deialdi itxian.
- Ikastetxeko zuzendaritzak hautatzeko eta Lanb. Heziketako Ikastetxe integratuen zuzendaritza libreki izendatzeko deialdia:** ez da aurkezteko baldintza izango zuzendaritza-taldeen prestakuntza ikastaroa izatea, baina izendapena baino lehen eskatuko da. 5 urte beharko dira karrerako funtzionario gisa irakasle lanetan, baina ez zuzeneko irakaskuntzan.

Zuzendaritza taldeen osagarria gehitzea eskatu dute batzuk. Ikuskariak izendatu dituzte zuzendaritza gehienak. STEILASEk eskatu du lana banatzea, baimenak ematea agintaldia bukatu ondoren (6 hilabete, urte sabatikoa, etab), irakasleek irakaskuntza zuzeneko ordu gutxiago izatea, bateragarria izatea adinagatiko ordutegi murrizketa eta zuzendaritza (kontziliazioa eta zaintzak errazteko), edo zuzendaritza taldeak handitzea behar den lekuetan.

GREENaren foru dekretu berria: izena aldatuko diote. Lanpostuen erdietarako proiektuak aurkezteko deialdia urtarriletik aurrera argitaratuko da, eta hurrengo ikasturtean gainerako lanpostuetarako.

Lanb. Heziketako Irakasle teknikoak: irakasle horiek Bigarren Hezkuntzako kidegoan sartuko dira, eskatutako titulazioa izanez gero, eta datorren urteko aurrekontuetan partida bat eskatuko da irakasle funtzionarioei soldata igoera atzeraeraginez ordaintzeko (interinoentzat ez). STEILASEk enegarrenez eskatu du interinoei ere ordaintzea.

Egonkortze prozesua: orain arte 968 pertsonak eman dute izena.

- STEILASEk eskatu du PAI programan lan egin duten ingeleseko espezialisten esperientzia osoa (0,7 puntu urte bakoitzeko) baremoan kontuan hartzeko. Pertsona horiek ziurtagiri bat eskatu beharko diote ikastetxeko zuzendaritzari PAIko tutore lanetan aritu direla frogatzeko.

Gure jarrera da PAI desagertzea eta ingeleseko espezialistak berreskuratzea.

- Hezkuntza Departamentuak 2002. urtetik aitzina emandako zerbitzuak aintzat hartuko ditu Goi Mailako **kontserbatorioko langile katedratikoen** zerbitzu orrian.

Ratioak: beste behin ere eskatu dugu ratioak jaistea etapa guztietan, baina ez dute negoziatu nahi. Hau Itunaren eta Akordio Programatikoaren ez-betetze larria da.

Maisu-maistren kidegoko 160 plaza eta Bigarren Hezkuntzako 97 plazako birjartze tasa onartu da. Horren azterketak oposizio prozedura arruntaren bidez egingen dira (gaia, kasu praktikoa, programazioa eta unitateak), baina data hurbildu arte ez dira ezagutuko espezialitateak eta horien kopuru zehatza. Azterketak noiz izanen diren ere ez dute argitu.

OPOSIZIOAK ETA ZERRENDAK BEREIZI!

HAU EZ DA HEZKUNTZA PUBLIKOAK BEHAR DUEN EGONKORTASUNA!

www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu